2026-10-16 OSTIRALA
1.766. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

EUSKARA

XI. Euskararen Maratoia hasi aurreko aldizkaria duzue hau; piztu eta gozatu! / 2-7

txintxarri

XI. EUSKARAREN MARATOIA



Ges aseguruak

piztu! sugarra gu gara

EUSKARArekin bat!
Sugarra gu gara!

XI. EUSKARAREN MARATOIA

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Aurrezkiak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!



Pablo Mutiozabal kalea, 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943-36 58 99 - geslasarteoria@ges.es - Lasarte-Oria

Euskararen Maratoiteka: hamaikagarrena ikusteko ere jaioak gara!

Hastear da XI. Euskararen Maratoia! Gure hizkuntzaren aldeko ekimen erraldoiak 40 urte bete ditu eta aurreko edizioak errepasatzeko harribitxi batzuk berreskuratu ditugu hemerotekatik



Lasarteko Euskara Azpibatzordea taldeko kideek aurreneko edizioa udaletxean aurkeztu zuten, '40 ordu baietz' lelopean. L-O UDALA



Patxi Etxeberria eta Antton Garin. L-O UDALA



Okendo plaza bete egiten da Euskararen Maratoiak iraun bitartean. L-O UDALA

Txintxarri

Euskararen Maratoia lau urtero egiten badute eta aurreneko edizioa 1986koa izan bazen, 2026an 40 urte bete ditu ekimenak eta bihar (hilak 17) hasiko denak hamargarren aldia beharko luke. *Piztu, sugarra gu gara* lelodun jarduera, ordea, hamaikagarrena da. Nola da hori posible? Galdera erantzuteko ez dugu matematika erabiliko, argazki euskarria duten oroitzapenak baizik.

Duela lau hamarkada *h* hizkia zeraman *Marathoia* hitzak, baina ez *erakarri* aditzak. Hori izan zen udalerri independente gisa sortua izan zen Lasarte-Orian bizi ziren zenbait euskaltzaleren burutazioaren oinarria: herri erdaldun horretan euskaraz bizi ziren pertsonak ekimen baten bueltan biltzea eta elkar ezagutzea: "Gure hizkuntza, herriko plazara". Erronka kutsua eman zioten *40 ordu baietz* leloa jarrita. Urriaren 25a eta 26a aukeratu zituzten.

Bada, gauzatu zuten 40 orduko erronka eta erakarri zuten jende askoz gehiago plazara. Hori horrela, bigarren edizioa bi urte geroago egin zuten, 1988ko maiatzean. Antolatzaileek xixko egin da amaitu zutenez, aurrerantzean lau urtero egitea adostu zuten. Zorrotz bete zuten hori, planak aldatzera behartu zituzten pandemia iritsi arte, koronabirusarena, 2020an. Horren eraginez 2022an egin zuten hamargarren edizioa eta horregatik hasiko da bihar XI. Euskararen Maratoia.


Ttakun KEk, udalak eta zortzikoteak antolatzen duten jarduerak ehunka norbanako eta eragile bilduko ditu euskararen bueltan berriz ere, 40 orduz. Gozatu eta piztu, sekulako zortea baita hamaikagarrena ikusteko ere jaioak izatea.


Metaforikoki zein literalki, ekimen dotorea da maratoia. L-O UDALA


Etorkizuna irakurtzen. L-O UDALA



Boluntarioen lana ezinbestekoa izaten da, adibidez, sukaldean. TXINTXARRI



Erronka berri bati ekitear. TXINTXARRI



Maratoiaren antolatzaileek bilera ugari egiten dituzte. TXINTXARRI



Maratoia ez litzateke gauza bera izango sudurgorriek parte hartuko ez balute. TXINTXARRI



Edizio bat amaitu eta hurrengoa iragartzeko modu originala! TXINTXARRI



Txupinazoekin, hasierak. TXINTXARRI





40 orduz euskaraz bizitzeko beharrezkoa da ongi gosaltzea, bestela azken orduari ezin zaio argazkikoa bezalako harrera beroa egin. TXINTXARRI



Argazkiko haurretako bat zortzikoteko kide da gaur egun. Nor? TXINTXARRI



Maratoian erditzea irudikatzen. TXINTXARRI



Ezkontzeko, non hobe Euskararen Maratoian baino? TXINTXARRI




Zortzikoteko kideak, maratoiaren eskultura Okendora eramaten. TXINTXARRI


Suhiltzaileen erakustaldia. TXINTXARRI


Herriko palmondoa Okendora itzultzeko aldarrikatzen. TXINTXARRI



Belaunaldi arteko euskal jantzien desfilea. TXINTXARRI




Euskaraz 40 ordu igarotzetik beste hainbeste egunez bizitzeko erronkaren hasiera irudikatu zuten oholtzan, 2016an. TXINTXARRI


Herritarrak, 'anaza' hartzen bazkaltzera eseri aurretik. TXINTXARRI


Duela lau urte bi haritz landatu zituzten Askatasunaren parkean. TXINTXARRI


Maratoialdiko GuruBuruak. TXINTXARRI


Marka guztiak hautsi zituzten 2022ko edizioan, Euskararen Maratoialdiaren Sentitu faseak 42 ordu iraun zituelako. TXINTXARRI



Aurreko edizioetako argazkiak eta XI. Euskararen Maratoian aterako ditugun guztiak ikusteko, eskanea ezazue QR kode hau sakelako telefonoarekin. Gozatu, eta, batez ere, piztu, sugarra gu gara!

Euskararen Maratoia testuinguruan jartzeko gida azkarra

Txintxarri

Euskararen Maratoia herrian errotua eta ezaguna izanagatik, lau urte igaro dira azken ediziotik eta komeni da testuingurua freskatzea. Gainera, hilaren 17ko eta 18ko asteburuan aurrenekoz biziko dutenak ere badaude: gurera bizitzera etorri direlako lau urte hauetan, beste herri batzuetatik etorriko direlako bihar eta etzi... edizioak bezainbeste arrazoi, hamaika, topatu ditugu gida azkar hau prestatzeko.

Oso zaila da (ezinezkoa ez esatearren) horren anitza den eta horrelako historia oparoa duen ekimena lau kontzeptutan laburtzea, baina zertan den ulertzeko lagunduko dutelakoan gaude: *40 ordu euskaraz, Herria, Plaza* eta *Zortzikotea* izan dira aukeratu ditugunak.





TXINTXARRI

'40 ordu euskaraz'

Erronka hori jarri zieten euren buruei lehenengo edizioko antolatzaileek 1986an eta horretan dihardugu. Zenbaitetan, 40 egunetara luzatu da. Euskara da maratoiaren bihotza: hurbiltzea, ikastea, erabiltzea, hausnartzea... Dena da beharrezkoa.



TXINTXARRI

'Herria'

Herria hitzak kontzeptu asko barnebiltzen ditu eta guztiak dira ezinbestekoak Euskararen Maratoian: norbanakoak, eragile eta elkarteak, erakundeak, herrigintza, boluntario lana... Hamaikagarren edizioan ere halaxe izango da.



TXINTXARRI

'Plaza'

Lasarte-Oriako erdigunea hartzen du Euskararen Maratoiak eta, batez ere, Okendo enparantza. "Gure hizkuntza, gure herriko plazara" izan zen 1986an proposatu zutena eta toki hori aukeratu zuten euskararen aldeko ekimen erraldoia aurrera eramateko.



TXINTXARRI

'Zortzikotea'

Bihar (hilak 17) goizeko zortzietatik etzi gaueko hamabietara arte jo eta fuego ariko diren zortzi herritarrek osatzen duten taldea da. Adin eta profil anitzak badituzte ere, guztiek dute helburu bera: Euskararen Maratoiak iraun artean herritarrak piztea.





Hilaren 8ko udalbatzarrean landu eta onartu zuten bost urtetarako AROA plana. LASARTE-ORIAKO UDALA

Euskara indarberritzeko 28 jarduera dituen AROA plangintza onartu dute

Bost dira ildo estrategikoak: gobernantza; jarrera eta motibazioa; ezagutza eta gaitasuna; erabilera eta elkarreragina; eta ikerketa zein sistematizazioa. Udal korporazioko alderdi guztiek egin dute bide orriaren alde, PPk ezik; abstenitu egin da

Txintxarri

Datozen bost urteetarako (oraindik amaitu ez den aurtengoa barne) Lasarte-Oriako Udalak jarraituko dituen hizkuntza politikaren lan ildo nagusiak zehazten AROA plana onartu dute berriki, udalbatzarrean. Eguneroko bizitzako esparru ugarietan euskararen ezagutzarekin, presentziarekin eta erabilerarekin lotutako 28 ekinbide bildu dituzte bide orri horretan. XI. Euskararen Maratoiaren atarian hartu dute erabakia PSE-EE, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdien aldeko botoekin; PP izan da abstenitu den bakarra.

Plan horrek hezkuntza, familia, kirola, kultura, merkataritza, ostalaritza, aisialdia eta udal administrazioaren gisako alorrak ditu kontuan eta horietan guztietan aurreikusten ditu euskararen ikaskuntzarekin zein erabilerarekin zerikusia duten neurriak. Udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkortak azaldu duenez, "2026-2030 aldirako udalaren hizkuntza politikaren plangintza" da AROA: "Neurriak jarraitzea eta datozen urteetan izango duten garapena ebaluatzea ahalbidetuko digu".

Diagnostikoa eta parte hartzea, planaren oinarri

"Lasarte-Oriako hizkuntza errealitatearen diagnostikoa eta parte hartze prozesu bat" izan dira AROA plana prestatzeko oinarriak. "Datu soziolinguistikoak aztertu ditugu eta norbanakoen zein eragileen ekarpenak jaso ditugu", zehaztu du Alkortak. Horri lotuta, aurreratu du "euskararen ezagutzaren eta eguneroko erabileraren artean dagoen aldea" dela identifikatu duten lan eremuetako bat. "Bide orrian eguneroko bizitzako hainbat esparrutan garatzeko jarduerak jaso ditugu".

Urtez urte urratsak egitea eta jarduerak gauzatzea espero dute sustatzaileek. Hori horrela, zortzi jarduera programatu dituzte aurten, hamabost datorren urtean, 21 2028an, hamasei 2029an eta hamahiru 2030ean. Horiek guztiak jarraitzeko eta ebaluatzeko Euskara Kontseilua sortzea aurreikusi dute. "Aurreikusitako ekimenen garapen maila ezagutzea eta bide orri osoa aldizka ebaluatzea ahalbidetuko digu".

Bost urtetarako den plan hori gauzatu ostean bigarren etapa bat garatzea espero dute, 2031n hasi eta 2034ra arte.

AROA planean jasotakoa jarraitzeko Euskara Kontseilua sortzeko asmoa dute

Bost ardatz estrategiko

Bost ardatz estrategikoren baitan egituratu dute AROA plana; 2030era arte 28 jarduera garatuko dituztela iragarri dute.

Ildo estrategikoak eta ekinbideak

- **Gobernantza:** euskara udal jardueran "zeharka txertatzeko neurriak" jaso dituzte AROA planean, Udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkortak adierazi duenez. Aurreikusi dituzten jardueretako batzuk dira erakundearen espazioetan herritarrek arreta euskaraz jasotzeko aukera bermatzea, udalaren prentsaurrekoetan hizkuntza horren erabilera handitzea eta Euskara Kontseilua sortzea.
- **Jarrera eta motibazioa: e**uskarazko kultura eskaintzarekin, Euskaraldiarekin eta herriko jaietan euskararen presentziarekin lotutako ekimenak bildu dituzte.
- **Ezagutza eta gaitasuna:** euskara ikastea errazteko eta herritarren hizkuntza gaitasunak hobetzeko ekinbideak prestatu dituzte, besteak beste, udalaren dirulaguntzak berrikustea, euskaltegietako prestakuntza eskaintza eta mintzapraktika zein hizkuntza laguntzarako programak.
- **Erabilera eta elkarreragina:** merkataritzan, ostalaritzan, kirol elkarteetan eta bai haurrentzako bai familientzako aisialdi jardueretan euskararen erabilerarekin lotutako jarduerak.
- **Ikerketa eta sistematizazioa:** euskarari buruzko pertzepzioak, jarrerak eta diskurtsoak aztertzea aurreikusi dute. Etorkizuneko jarduerak bideratzeko informazioa eragile ugarirekin elkarlanean eskuratuko dute.

Aurreneko aldia amaituta bigarren etapa 2031tik 2034ra artekoa izango dela aurreikusi dute AROAren sustatzaileek.

Estrategia eta aurrez aurre hitz egitearen goxotasuna bateratzeko

Txintxarri

Udalbatzarrak onartu berri du AROA 2026-2030 plan estrategikoa, datozen bost urteetan udalerriko hizkuntza politika gidatuko duen bide orria. Bestalde, XI. Euskararen Maratoiaren barruan, Esnatu! kafe-tertulia egingo dute hilaren 18an, Okendo plazan, 09:00etatik aurrera. Lehen begiratuan eremu desberdinak diruditen arren —bata bulegoetako plangintza eta bestea kaleko topagunea—, txanpon beraren bi aldeak dira.

Plangintzak eta estrategiak ezinbestekoak dira hizkuntza baten biziberritze prozesuan. AROA planak helburu argiak ditu: hezkuntza, kirola, merkataritza eta administrazioa bezalako esparruetan euskararen erabilera bermatzeko urratsak finkatzea. Baina plana, bere horretan, egitura hotza da barruan bizitzarik sartzen ez bazaio. Eta horixe da, hain zuzen ere, Esnatu! kafe-tertulia antolatu dutenen asmoa: berotasuna eta giro goxoa eskaintzea.

Kafe baten bueltan elkartzea magikoa izan daiteke: elkarrizketa aberatsak, tentsiorik gabeak eta parte hartzaileak ahalbidetzen ditu. Kontua ez da solasaldi magistrala izatea, baizik eta herritarrei hitza ematea eta euskarak gaur egun bizi duen egoeraren bueltan jardutea, eguneroko gertaera eta anekdotetatik abiatuta.

Hori da AROA planari arima eta edukia emango diona: herritarren eguneroko ahotsa eta konpromiso txiki zein handiak. Azken batean, euskara indarberritzeko ez da nahikoa plangintza ona izatea, ezta jai giro isolatua izatea ere. Biak bateratu behar dira. Bide orriaren kutsu estrategikoa eta Euskararen Maratoiak piztuko duen sugarra elkarrekin elikatzen direnean lortzen da norabide argian aurrera egitea. Kafearen usainarekin batera datorren hausnarketa horrek erakusten du Lasarte-Orian badagoela nahia, badagoela egitasmoa, eta batez ere, badagoela euskara esna mantentzeko gogoa.

Hori horrela, ekimena goizeko bederatzietan hasiko da Okendo plazako karpan. Izena eman duten herritarrak taldeetan elkartuko dituzte eta kontzeptu jakin batzuen gainean gogoeta egiteaz gain egunerokotasunarekin lotura duten egoerak partekatuko dituzte.



Ostadar SKTko eta udaleko ordezkariak, babesleak eta Euskararen Maratoiko zortzikotea. TXINTXARRI


Duela lau urte, Maratoialdi garaian izan zen krosa. TXINTXARRI

Euskararen Maratoiko zortzikoteak, Lasarte-Oria Bai! Kroseko 1 dortsala

Euskararen Maratoiak gure hizkuntzaren sustapenaren alde jokatzen duen papera aitortu nahi izan du Ostadar SKTk. Korrikalariak eta ipar martxalariak izango dira lehian hilaren 25ean, Lasarte-Oriako kaleetan barrena

Txintxarri

Hilaren 17an eta 18an, Euskararen Maratoiak Okendo plaza eta erdiguneko kaleak hartuko ditu eta, astebete geroago, hilaren 25ean, Lasarte-Oria korrikalari eta ipar martxalariez beteko da Lasarte Oria Bai! Kros Herrikoiaren 29. edizioarengatik. Ostadar SKTko kideek lasterketa aurkeztu zuten hilaren 13an babesten duten merkatari eta erakundeek lagunduta.

Lehiaketako nondik norakoak azaltzeaz gain, aurtengo 1 dortsala Euskararen Maratoiko zortzikoteak eramango duela jakitera eman zuten: "Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia Euskararen Maratoiarekin sortu zen, 1996an. Ostadarrek ekimen horri egindako ekarpena izan zen, egitarauaren barruan jokatu zen lehenengo edizio hura. Orain, 31 urteren ondoren, hamaikagarren edizioa ate joka daukagun honetan, 1 dortsala Euskararen Maratoiari eman nahi izan diogu euskararen sustapenaren alde jokatzen duen papera aitortzeko. Eta bide batez, helburuarekin bat egiten dugula adierazteko, eta, korrikalariei, lasterketa egunean, eta, egunerokoan, gure hizkuntzaren aldeko hautua egin dezaten bultzatzeko".

40 ordu oholtzan gainean egotetik 40 bat minutu korrika egitera, hori izango da agerraldian zeuden zortzikoteko kideen erronka. Ez da lehen aldia, Maratoiko ordezkariek lasterketan parte hartzen dutena, duela lau urte, Maratoialdiaren *Prestatu* fasean geundela gogoratzeko izan ziren lasterka.

Bi festa handi

Ohikoa den bezala, Kros Nagusian bi lasterketa lehiatuko dira. Goizeko 10:30ean, korrikalariak izango dira irteten lehenak eta Lasarte-Oriako kaleak eta Zubieta zeharkatzen dituen 10 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre. Lasterkarien irteeraren ostean, Ipar Martxako 5 kilometroko probari ekingo diote modalitate horretako kirolariek. Guztiek Okendo plaza izango dute helmuga.

Bi probetako irabazleek, emakumezko zein gizonezko, txapela eta lore sorta jasoko dute. Garaikurrik ez da izango, ordea; kategoria ezberdinetan podiuma osatzen duten parte hartzaileek Aterpeako komertzioetan erabiltzeko 1.200 euroko balioa duten erosketa txartelak izango situzte sari.

Aurten, berrikuntza modura, aplikazio bat izango da martxan eta korrikalariek ibilbidean zehar zein puntutan dauden partekatu ahal izango dute senide eta lagunekin.

12:00ak aldera, Korrika Festaren 24. edizioaren txanda izango da. 700 bat neska-mutil inguru izango dira lasterka herriko erdigunean.

Izen emateak

Lasarte-Oria Bai! krosean izena emateko bi aukera daude ondoko koadroan ikus daitekeen bezala. Dortsalaren prezioa 10 eurokoa da Ostadarreko bazkideentzat eta 15 eurokoa, gainerako guztientzat; lasterketa egunean, guztiek 23 euro ordainduko dituzte.

Parte hartzaileek elastiko tekniko bat jasoko dute opari; lasterketa bezperan eta egunean bertan jaso behar da Michelin kirol guneko pilotalekuan. Horrez gain, Lasarte-Oriako taberna, jatetxe, okindegi eta bestelako denda zein merkatariek eskainitako oparien eta kirol ikuskizunetarako sarreren zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

Korrika Festan parte hartzeko, aldiz, 7 euro ordaindu beharko dira. Trukean, kamiseta tekniko bat eta lasterketa amaitzean, bestelako opariak izango dituzte gaztetxoek.

Izen emate lekuak, egunak eta ordutegiak

Internet bidez
- **www.ostadar.eus**
  Hilaren 23ra arte (23:59an itxiko da)

Aurrez aurrekoa
- **Antonio Mercero guneko erakusketa gunea**
  Hilaren 19tik 23ra, 17:00etatik 19:30era
- **Michelin kirol guneko pilotalekua**
  Hilaren 24an, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era





Irudi honetan ikus ditzakegu BIZI-Lagunak taldea osatzen duten zenbait kide. BIZI-LAGUNAK

GIZARTEA

Elkar zainduko duten bizilagunak izan nahi dutelako antolatu dira

BIZI-Lagunak elkartea martxan jarri berri dute Lasarte-Oriako aniztasunari erantzun, eta pertsonen, elkarteen, eragileen eta erakundeen arteko harremanak indartzeko helburuarekin. Lehenengo hitzordua ere iragarri dute

Txintxarri

Lasarte-Oriara bizitzera datozenei harrera egin eta horrek dakarren prozesuan sare iraunkor eta jasangarria sortzeko beharra ase nahian sortu dute hainbat herritarrek BIZI-Lagunak elkartea. Hala jakinarazi dute eragile hori osatzen duten kideek, duela egun gutxi egindako aurkezpen agerraldian. Taldearen xedea zein den ere jakinarazi dute: "Gure helburua ez da soilik pertsona migratzaileei harrera egitea, baizik eta herrian dagoen aniztasunari erantzutea, pertsonen, elkarteen, eragileen eta erakundeen arteko harremanak indartzea eta pixkanaka elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko sare bat sortzea".

Elkartea martxan jartzeko lehen ernamuina maiatzean landatu zuten. Orduan, dinamika baten bidez elkartu ziren kideak, eta harreraren, aniztasunaren eta herriko bizikidetzaren gaineko hainbat behar, kezka eta proposamen mahaigaineratu zituzten. Horiek izan dira elkartea martxan jartzeko aitzakia nagusia: "Hortik hasi ginen ideiak garatzen eta forma ematen, eta, azkenik, BIZI-Lagunak sortu eta erregistratu genuen. Beraz, elkartea ez da ideia itxi batetik sortzen, baizik eta prozesu kolektibo batetik, herrian dauden beharrei eta aukerei erantzuteko asmoarekin".

Izenaren erabakia

BIZI-Lagunak izena jarri diote elkarteari, eta horren zergatia eta esanahia zeintzuk diren ere kontatu dute: "Alde batetik, *bizi* eta *lagunak* kontzeptuetatik abiatzen da, eta pertsona migratzaileentzat ere ulertzeko eta hurbiltzeko erraza den izena izatea bilatzen du. Baina, batez ere, *lagunak* hitzak gertutasuna, harremana, elkar ezagutzea eta elkarri laguntzea adierazten du. Guretzat harrera ez da norabide bakarreko prozesu bat. Ez dugu nahi soilik pertsona migratzaileek laguntza jasotzea; nahi duguna da herriko pertsona, elkarte eta eragile desberdinen artean harreman bidirekzionalak sortzea, bakoitzak bere ekarpena egin dezan eta, aldi berean, besteengandik ikas dezan". Horregatik, BIZI-Lagunak sare bat sortzeko asmoarekin sortu dela azpimarratu dute behin eta berriz hori osatzen duten kideek, eta gaineratu, informazioa, orientazioa edo laguntza behar denean bertara jo ahal izateko aukera izango dutela interesdunek, baina horrez gain, pertsonak elkartzeko, elkar laguntzeko eta harremanak sortzeko espazioa ere izango dela.

Sarea sortzeko pausoak

Elkartearen helburu nagusiak dira bertako kideek eta bertaratuko direnek elkar ezagutzea, horiei harrera egitea eta informazioa lantzea: "Gure ustez, sare bat sortzeko lehenengo pausoa da jakitea nor garen, zer egiten dugun eta zer baliabide ditugun. Horregatik, Lasarte-Orian dauden elkarteak, eragileak eta dinamikak ezagutu nahi ditugu, bakoitzak zer eskaintzen duen eta zer harreman sor daitezkeen ikusteko. Aldi berean, BIZI-Lagunak osatzen dugun pertsonok ere elkar ezagutzea garrantzitsua da, horrela elkarren artean konfiantza eta lankidetza sortzeko. Zentzu horretan, elkarteak informazioaren eta eskaeren arteko zubi moduan ere jardun nahi du. Herrian edo pertsona migratzaileen artean behar, eskaera edo kezka bat identifikatzen bada, informazio hori dagokion eragileari edo udalari helarazteko aukera izatea nahi dugu".

Helburu horien barruan, azpimarratu dute dekalogoaren sorrera. Egun prozesuan dagoela esan dute, eta lan hori, batez ere, Lasarte-Oriako Oriarte Institutuko BHko ikasleekin landu eta garatzen ari direla, nahiz eta aldi berean, udalaren esku ere badagoen. Dekalogo horren bidez, harreraren eta bizikidetzaren inguruan ditugun ideia eta konpromiso batzuk jasotzea eta herri mailan partekatu asmo du eragileak.

Pedagogia interkulturala ere badu ardatz proiektuak: "Gure ustez, gaur egun aniztasun kulturala aitortzea garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa. Herri batean kultura eta jatorri desberdinak egoteak ez du esan nahi kultura horien artean benetako harremana dagoenik. Horregatik, guretzat interkulturalitatea da gakoa, ez soilik kultura desberdinak aitortzea, baizik eta haien artean elkarreragina, ezagutza eta harremana sortzea. Azken finean, elkar ezagutzen ez badugu, oso zaila da komunitate kohesionatu eta jasangarri bat eraikitzea". Hori horrela, BIZI-Lagunak elkarteak sustatu nahi ditu pertsona eta komunitate desberdinen arteko topaketak eta eskaini, elkarrekin harremanak sortzeko espazioak.

Intersekzionalitatearen ikuspegia ere "oso garrantzitsua" da eragileko partaideentzat: "Ez ditugu pertsona migratzaile guztiak errealitate beraren barruan kokatu nahi, ezta orokortzerik egin ere. Pertsona bakoitzaren egoera desberdina da, eta hainbat faktorek eragin dezakete bere errealitatean, hala nola, jatorriak, adinak, generoak, egoera ekonomikoak, hizkuntzak, familia egoerak, etxebizitzak edo bestelako egoerek, besteak beste. Faktore horiek elkarren artean gurutza daitezke, eta horregatik pertsona bakoitzaren egoera bere osotasunean ulertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu".

Espazio seguruak eta aurreikusitako deialdiak

Pertsona migratzaileentzako espazio seguruak sortu nahi dituztela ere azaldu dute. Horietan pertsona bakoitzak bere esperientziak, kezkak, beharrak eta proposamenak partekatzeko aukera izan dezala nahi dute kideek, eta horretarako, hausnarketa indibiduala eta taldeko hausnarketa erabiliko dituzte metodologiaren oinarri gisa: "Ez dugu soilik arazoei buruz hitz egin nahi; bizi dugunari buruz hausnartu nahi dugu, zer gertatzen den ulertu, zer behar dugun identifikatu eta zer egin dezakegun elkarrekin pentsatu. Horrela, parte hartzea eta hausnarketa sustatu nahi ditugu, eta pertsonak beren prozesuen protagonistak izatea".

Epe laburrean, hainbat ekintza aurrera eramango dituela aurreikusten du BIZI-Lagunakek. Horietako bat izango da Su-Artean, eta hori zertan den ere azaldu dute: "Herrian dauden komunitate eta errealitate desberdinak ezagutzeko eta haien arteko harremanak sustatzea da xedea, kontaktu berriak sortzea, elkar ezagutzea eta dagoeneko existitzen diren sareak identifikatzea. Izan ere, askotan herri berean pertsona, elkarte eta baliabide asko daude, baina ez dute elkar ezagutzen. Horregatik, lehenengo kontaktu horiek sortzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu".

Agerraldia amaitzeko, diagnostiko sozial baten beharraz ere solastatu dira: "Herriko errealitatea hobeto ezagutu behar dugu: zer komunitate dauden, zer jatorri eta nazionalitate dauden, zer elkarte eta eragile dauden, zer sare existitzen diren, zer behar identifikatzen diren eta, aldi berean, zer indargune eta esperientzia positibo ditugun. Diagnostiko horren helburua ez litzateke soilik arazoak identifikatzea; Lasarte-Orian dagoen potentziala, baliabideak eta dagoeneko sortuta dauden harreman eta esperientzia positiboak ere ezagutuko genituzke. Hori eskura edukita, hurrengo pausoak modu eraginkorragoan zehaztu ahal izango genituzke".

"Elkarte eta eragileen artean harreman bidirekzionalak sortu nahi ditugu"

Esti Garmendia Arrieta alkategai izatea proposatu du EH Bilduren Mahai Politikoak

Herritarraren "gertutasuna, eragileen ezagutza eta ibilbidea" azpimarratu dituzte

Txintxarri

Herritarraren "gertutasuna, eragileen ezagutza eta ibilbide politikoa" azpimarratu dituzte alderdikideek. Hurrengo urteko maiatzaren 23ko hauteskundeak irabazteaz gain, Lasarte-Oriako auzo guztietan "bizitza proiektu duinak garatzeko aukera" eman nahi diete bizilagunei. Norabide horretan, Esti Garmendia Arrieta iruditzen zaie alderdi subiranistaren herri proiektua eta udal gobernua zuzentzeko pertsona aproposena.

2023ko udal hauteskundeetan ere Garmendia izan zen EH Bilduren alkategaia. Mahai Politikoko kideek gogoratu dutenez, "babes zabala" jaso zuen alderdiak boz horietan (bost zinegotzi eta 2.429 boto). Eta urtebetera egin ziren Euskadi Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bildu lehen indarra izan zen, "udalerrian ezkerreko subiranismoaren goranzko tendentzia finkatuta".

Herritarren behar eta kezkei erantzuteko proiektua EH Bildurena da, gipuzkoarren gehienak adierazten duen gisan", adierazi dute Mahai Politikoko kideek. "Urteotan erakutsi duen konpromisoagatik, Lasarte-Orian hori gidatzeko pertsona egokiena Esti Garmendia Arrieta da gure iritziz".



Esti Garmendia Arrieta alkategai izan zen 2023an ere. LASARTE-ORIAKO EH BILDU

KULTURA

"Txundituta" geratu dira entzuleak



UDAL LIBURUTEGIA

Ander Izagirreren *Vuelta al país de Elkano* liburuaren gainean solastatu dira Udal Liburutegiko irakurketa txokoan.

Ohi bezala, Monica Leivak gidatu du saioa. Udal Liburutegiko arduradunak kontatu du irakurleentzat "deskubrimentu bat" izan direla bai idazlea eta baita liburua bera ere, eta hori hala ziatearen arrazoia ere ezagutarazi du: "Euskaldunen historiako kontu asko kontatzen ditu jendearentzat ezezagunak direnak".

Egilea txirrindularia ere badenez, liburua etapetan banatua dago, eta etapaz etapa Euskal Herrian zehar mugitzen da herri bakoitzeko istoriak kontatuz; itsasoarekin eta arrantzaleekin lotutakoak dira horietako gehienak. Lan hori idatzi ahal izateko, gainera, askotariko adituekin elkartu zela kontatu zien Izagirren bera entzutera joandakoei, hala nola, Itxaro Borda, Mertxe Urteaga, Moussa Thior, Andoni Luis Adurizekin.

Horren guztiaren berri izan zuten saiora bertartu direnek.



* Promozioak 2026ko abenduaren 31ra arte balio du, gaur egun LABORAL Kutxa STa ez duten saltoki berrientzat. Android STrako eta ST birtualerako eskuragai eta Payclick zerbitzuarekin.

** Hileko fakturazioa 20.000 €-tik gorakoa bada, % 0,40ko deskontua aplikatuko da zenbateko horretatik gorako tartearen gainean. Enpresa-txartelaren bidez egindako hileko fakturazioa eta nazioarteko txartelaren bidez eragiketa ez-presentzialetan egindakoa hileko fakturazio osoaren % 10etik gorakoa bada, % 1,5eko tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei guztiei. Kuotak saltokiko terminal (ST) baten mantentze-kostua hartzen du barne, eta terminal gehigarri bakoitzeko 5 €-ko komisioa kobratuko da.

LABORAL kutxa

KULTURA

Ixiar Rozas herritarrak euskarazko literaturako Euskadi saria irabazi du

Hizkuntzaren bidez "adierazteko modu berriak" topatu izana aitortu diote idazleari

Txintxarri

Epaimahaiko kideek azpimarratu dute idazle lasarteoriatarrak *Narrugorrik* liburuan egindako "literatur esplorazio lana", hizkuntzaren bidez adierazteko "modu berriak" topatu izana eta obra horren bidez erakutsi duen "literatura generoen artean mugitzeko gaitasuna". Aurtengo urtarrilean egindako elkarrizketan egileak kontatu zigun "biluztasun uneez eta moduez egindako konposizioa" dela saritua izan den lana.

Beste bi saridun iragarri dituzte Donostiako Tabakaleran egindako prentsaurrekoan: Yolanda Arrietak irabazi du haur eta gazte literaturaren Euskadi saria, *Zurtz* lanarekin; eta Kike Ibañezek eskuratu du ilustrazioen alorrekoa, *El diablo sobre ruedas* obran egindako lanagatik. Bi horiek eta Rozasek 14.000na euro poltsikoratuko dituzte eta aukera izango dute beste 4.000 euro irabazteko, baldin eta epaimahaiak saritu dituen liburuak beste hizkuntza batera itzultzen badira.

Donostiako Tabakaleran egin zuten saridunak iragartzeko prentsaurrekoa hilaren 15ean eta bertan izan ziren, sarituez gain, Andoni Iturbe Kultura sailburuordea eta Ana Lopez Kultura sustatzeko zuzendaria. Biak, Eusko Jaurlaritzakoak.

Maiatzean liburua Jalgi kafe antzokian aurkeztuko zuela-eta urtarrilean elkartu ginen idazlearekin, *Narrugorrik* (Consonni, 2025) lanari buruz luze eta zabal hitz egiteko Zabaleta auzoko Arima tabernan. Obra horretan jasotakoari buruz galdetu eta hauxe erantzun zigun: "Liburuan sartzen hasteko, gogoeta bat: barrurako zein kanporako bidaia bana dago. Gauza guztiek dituzte norabide bikoitzak, edo gehiago, eta horietan sartzean mundu bat irekitzen da. Biluztasun une eta moduekin egindako konposizioa da". Gauza "askorekin" osatu du genero ugari uztartzen dituen lana: "Soinuak; animaliak, gizakiak, mota guztietako izakiak; paseoak eta paseoetako lagunak, ibilaldiak, zeharkaldiak. Batzuetan narrazioen bidez eman diet forma, eta besteetan, poesiaren bidez".



Ixiar Rozas (ezkerretik, hirugarrena), gainerako saridunekin eta ordezkariekin. IREKIA

GIZARTEA

Elkartasun olatua, Lasarte-Oriatik



TXINTXARRI

Palestinako erresistentziak "bizitzaren eta giza duintasunaren alde" munduari deia egin zionetik hiru urte bete ziren egunean (hilak 7) herrialde horri elkartasuna adierazteko manifestazioa egin zuten erdigunean barrena.

Arratsaldeko zazpiak pasatxo abiatu ziren manifestariak Okendo plazatik. Eguraldiak ez zuen batere lagundu baina palestinarrei elkartasuna adieraztea garrantzitsuagoa zela irmo erabakita, euren aldeko aldarriak ozen zabaldu zituzten aurreneko unetik, lelo hau zeraman afixa erakutsita: *Genozidioa ez da amaitu. Ibaitik itsasora Palestina askatu*!. Amaitzeko, komunikatua irakurri zuten.

GIZARTEA

Krisi ekosozialaz, erregai fosilez eta energia berriztagarriez hitz egin dute

Txintxarri

Euskal Herrian eta nazioartean puri-purian dagoen gai bat izan dute hizpide hilabete honetako hitzaldi-tertulian: klima larrialdia. Borobilean Elkarteko kideek ohiko formatua aurrera eraman zuten eta kontu horretan aditua den pertsona bat gonbidatu zuten Antonio Mercero aretora hilaren 14an: Stop Fosilak eragileko kide Gorka Laurnaga. Aurten eratu dute klima aldaketak Lurra planeta osoan dituen ondorioen eta herri erantzukizunari buruzko eztabaida sustatzeko zein proposamenak gizarteratzeko taldea.

Hasierako hitzartzea hiru ardatz hauetan oinarritu zuen adituak: egungo klima aldaketa eta krisi ekosoziala, erregai fosilen afera eta energia berriztagarriekiko zein desazkunderako trantsizioa. Azalpen orokorragoak eman zituen hasieran eta Euskal Herriko egoeraz mintzatu zen gero. "Izeberg fosila" da, kontsumitzen den energiaren % 80 iturri horretakoa delako.

Hori horrela izanik, gutxiago kontsumitzea eta erabili beharrekotik gehiago berriztagarria izatea jarri dute mahai gainean: 25 urte barru 44 terawatt/ordukoa (gaur-gauzko 80 dira) izatea kontsumo orokorra eta horren erdia gutxienez hemen sortzea. "Gure ustez, bizi kalitatean ez du eragiten, oinarrizko zerbitzu guztiak estaltzen baititu".



Gorka Laurnaga, hizketan. TXINTXARRI

POLITIKA

Etxebizitza duinaren alde batu dira



TXINTXARRI

Beste 25 udalerritan egin bezala, Lasarte-Orian ere mobilizatu dira etxebizitza duinen alde eta espekulazioaren nahiz etxegabetzeen aurka. Eskualdeko deialdia izanik, Usurbilgo zenbait lagun batu zaizkie Okendora joandako dozenaka lasarteoriatarrei. "Egoera honen aurrean onena nazioa eraikitzen jarraitzea eta euskal errepublikarantz joatea da, herritar guztiak duintasunez bizi daitezen", aldarrikatu dute.

IBILBIDEEN EGUNA

Inguruko mendiez eta bidexkez gozatzeko, Buruntzaldeko Ibilbideen eguna

Hilaren 18an, 08:00etatik 14:00etara, gauzatuko da lehiarik gabeko ekimena

Txintxarri

Hilaren 18an, igandean, ospatuko da Buruntzaldeko Ibilbideen Egunaren 18. edizioa. Ekimenak helburu du, alde batetik, lehiarik gabeko jarduera fisikoa bultzatzea, eta bestetik, eskualdeko natura-eta landa-ingurunea ezagutzeko aukera eskaintzea. Andoaingo, Usurbilgo, Urnietako eta Lasarte-Oriako udaletako kirol zerbitzuek elkarlanean sustatutako jarduera da. Andatza Mendi Elkartea, Euskalduna Mendigoizale Elkartea, Ostadar SKTko mendi saila eta Super Amara izango dira laguntzaile, eta Lasarte-Oria aurtengo arduradun nagusi.

Bost ibilbide (ikus koadroa) izango ditu proiektuak, eta geziz eta zutoinez izango dira seinalizatuta. Ohiko legez, kolore bana erabiliko dute udalerri bakoitza identifikatzeko: urrea Lasarte-Oriarentzat, berdea Urnietarentzat, laranja Usurbilentzat eta urdina Andoainentzat. Era berean, panelak egongo dira eskuragarri bide guztietan zehar; trazatu, profil eta distantziei buruzko informazioa eskaintzeko.



Buruntzaldeako udaletako ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

Ibilaldiak diraun bitartean, kontrol guneak egongo dira lau udalerrietan. Lasarte-Orian, San Pedro elizaren ondoko plazan ipiniko dute. Andoainen eta Urnietan, aldiz, udaletxeen azpialdean egongo da, eta Usurbilek bi izango ditu Santuenean, Zorrotz zubiaren ondoan, eta Aginagan, Mapil baserriaren inguruan.

Kontrol gune horietan, informazioa jasotzeko aukera izango dute parte hartzaileek, baita txartela zigilatzeko eta ura zein mokadutxoak hartzeko ere.

Irteerako udalerriaren zigiluko txartel bat jasoko dute, ibilbidearekin hasterakoan, eta bi ibilbide osatzerakoan, oroigarri bat. Horrekin batera, Andoain-Lasarte-Oria edota Andoain-Usurbil ibilbideak burutakoek ere oparia eskuratuko dute, edozein norabideetan eginda ere.

1. Andoain - Lasarte-Oria: Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginez. 7,9 kilometro ditu, oinez bakarrik egin daiteke eta mendiko oinetakoak behar dira.
2. Andoain - Urnieta: 4,8 kilometrokoa. Oinez edo bizikletaz egin daiteke.
3. Andoain - Usurbil: Andatzatik barrena 14,9 kilometrorekin, ibilbiderik luzeena da. Oinez bakarrik egin daiteke eta mendiko oinetakoak behar dira.
4. Lasarte-Oria - Urnieta: 3,9 kilometrokoa. Oinez edo bizikletaz egin daiteke.
5. Lasarte-Oria - Usurbil - Aginaga: 4,5 kilometro Santueneako punturaino eta 9 kilometro Aginagaraino. Oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Momentuko laguntza

Ibilaldian laguntza izateko, Navi Ruta aplikazioa izango da eskuragarri. Kokapenari, jarraitu beharreko norabideari eta interesguneei buruzko informazioa emango du aplikazio honek, uneoro. Bestalde, deskargatzeko eta ibilaldi bakoitza aktibatzeko, informazio paneletako eta kontrol guneetako QR kodeak eskaneatu beharko dira.

Itzulerako autobusa

12:00etatik aurrera, autobus zerbitzua ipiniko dute. Zerbitzu hori erabiltzeko, parte hartze txartela zigilatuta aurkeztu beharko dute parte hartzaileek. Aginagako Ezpaldi gasolindegitik abiatuko da, eta Usurbilen, Lasarte-Orian, Andoainen eta Urnietan egingo ditu paradak. Hiru irteera egingo ditu autobusak: 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan. Urnietan amaituko da azken zerbitzua, 14:40an.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 17

GORENGO MAILA
- **Ostadar SKT - Allerru KE**
  17.30. Michelin kirol gunean.

GORENGO MAILA, EMAKUMEAK
- **Ostadar SKT - Segura Aizkorri Ft**
  15.30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENIL MAILA
- **Ostadar SKT - Antigua Luberri**
  17.30. Atsobakar kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA
- **Zumaiako FT - Texas Lasartearra CF**
  18.30. Aita Mari, Zumaian.

OHOREZKO KADETE MAILA
- **Vasconia CD - Ostadar SKT**
  17.45. Puio, Donostian.

IGANDEA 18

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Atotxa River FT - Ostadar SKT**
  17.50. J.M. Zamora, Errenterian.

JUBENILEN I. MAILA
- **Texas Lasartearra CF - Orioko FT**
  10.45. Michelin kirol gunean.
- **Zumaiako FT - Ostadar SKT**
  18.00. Aita Mari, Zumaian.

KADETEEN 1. MAILA
- **Ostadar SKT - Internacional CD**
  12.40. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

OSTIRALA 16

OHOREZKO E. MAILA
- **Eguzki Arkupe R. - Goierri KE**
  20.50. Maialen Chourraut kirol.

ERREGIONAL I. MAILA
- **Urnieta CD - Eguzki ISU Leihoak**
  20.20. Urnietako kiroldegian.

LARUNBATA 17

NAZIONAL LIGA, OHOREZKO J.
- **Eguzki CORPAChef - Gijon**
  17.00. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA
- **Eguzki Avenida tab. - Antiguoko**
  12.20. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA
- **Eguzki Escalerilla t. - Irun futsal**
  11.00. Maialen Chourraut kirol.
- **Antiguoko - Eguzki Urarte Berri suk.**
  10.00. Paco Yoldi kirol., Donostian.

BOLEIBOLA

LARUNBATA 17

SENIOR 1. MAILA
- **Unaiarena Gasteiz BK - Ostadar SKT**
  20.00. Gasteiz, Araban.

IGANDEA 18

SENIOR 2. MAILA
- **Navarvoley A - Ostadar SKT**
  11.30. Berriozar, Nafarroan.

SASKIBALOIA

OSTIRALA 16

SENIOR 2. MAILA
- **Askatuak Glpuzkoa - Ostadar SKT**
  19.30. Pio Baroja kirol., Donostian.

LARUNBATA 17

SENIOR 3. MAILA
- **Zurrut - Ostadar SKT**
  20.00. Allurralde kirol., Andoainen.

JUNIOR PARTAIDETZA
- **TAKE - Ostadar Alvite Arqui.**
  10.45. Usabal kirol., Tolosan.

KADETE ERREND. URREA
- **Antigua Luberri - Ostadar SKT**
  16.00. Benta Berri kirol., Donostian.

KADETE PARTAIDETZA
- **Aloña Mendi - Ostadar Beltza**
  12.20. Zubikoa kirol., Oñatin.



IGANDEA 18

EUSKAL LIGA, JUNIORRA
- **Afilados Gasteiz Araski - Ostadar Alvite Arqui.**
  16.00. Gazteiz, Araban.

KADETE PARTAIDETZA
- **Arri BKL Larraitz - Ostadar Urdina**
  12.30. Antzizar kirol., Beasainen.

PILOTA

OSTIRALA 16

ESKUZ, BINAKA, N. 2. MAILA
- **Legazpi - Intza KE**
  19.00. 1. partida. Legazpin.

G. PALA, BINAKA, N. 3. MAILA
- **Intza KE - Gazteleku 1**
  19.30. 1. partida. Loidibarren pil.

LARUNBATA 17

ESKUZ, BINAKA, K. 1. MAILA
- **Intza KE - Behar Zana**
  11.00. 2. partida. Michelin pil.

ESKUZ, BINAKA, K. 3. MAILA
- **Intza KE - Behar Zana 1**
  11.00. 1. partida. Michelin pil.

ERRUGBIA

LARUNBATA 17

EUSKAL LIGA, 1. MAILA
- **Zarautz Beltzak RT - Baztan RT Menditarrak**
  17.00. Asti, Zarautzen.

16. URTEZ AZPIKOA
- **Zarautz Beltzak Eibar RT - Universitario Bilbao**
  10.00. Asti, Zarautzen.

14 URTEZ AZPIKOA
- **Zarautz Beltzak RTko gazteek ligako lehen jardunaldiari egingo diote aurre.**
  14.30. Atsobakar kirol gunean.

IGERIKETA

LARUNBATA 17

NEGUKO LIGA
- **Buruntzaldea IKTko absolutu, junior eta infantil mailako kideek Neguko ligari hasiera emango diote.**
  15.30. Maialen Chourraut kirol.

AUTOMOBILISMOA

IGANDEA 18

URRAKIRA IGOERA
- **Aitor Manso herritarrak Euskadiko Mendi igoeren azken proban parte hartuko du.**
  10.00. Azpeitian.

MENDIA

IGANDEA 18

IBILBIDEEN EGUNA
- **Buruntzaldeako Ibilbideen Egunaren 18. edizioa ospatuko da gure inguruko mendietan.**
  08.00. Buruntzaldean.

SASKIBALOIA

Ostadar SKTko ordezkariek, Euskal Ligan kale, Kadete Errendimendu Urrean bale

Kadeteek neurketa estua eta borrokatua jokatu dute Arri BKL Txindoriken aurka

Txintxarri

Ostadar SKTko ordezkariek ez zuten zortea lagun izan ligako azken jardunaldian; gehienek aurkako emaitza lortu zuten etxean. Kadete Errendimendu Urreko ordezkaria izan zen salbuespena.

Hilaren 10ean, saskibaloiaz gozatzeko arratsaldea izan zen Maialen Chourraut kiroldegian.

Ordizia Orbinox hartu zuen Euskal Ligako junior mailan lehiatzen ari den Ostadar SKTk.

Aurkariak gogotsu atera ziren kantxara eta hasieratik aurreratu ziren markagailuan. Ostadar erritmoa mantentzen saiatu zen, baina lehen laurdenean dagoeneko 9-17koa zen emaitza.

Bigarren eta hirugarren laurdenetan hautsi zuten ordiziarrek neurketa. Defentsan sendo eta erasoan fin ibili ziren; pertsonaleko marrako jaurtiketetan ere ez zuten huts egin. 10-24 eta 11-23 izan ziren partzialak.

Azken hamar minutuetan, berdinduagoa izan zen lehia. Hala ere, aurkariaren aldeko izan zen hori ere (14-15) eta ondorioz, 44-79 amaitu zen partida.



Euskal Ligako Juniorren partidako irudia. TXINTXARRI

Kadete Partaidetza

- Ostadar Beltza 41 - 50 Inter Intxa
- Ostadar Urdina 19 - 78 Eskoriatza Gorria

Garaipen bakarra

Euskal Ligako ordezkariaren aurretik, Kadete Errendimendu Urreko taldeko kideek Arri BKL Txindokiren aurka jokatu zuten.

Norgehiagoka estua izan zen kantxan. Atsedenaldira 24na iritsi ziren (9-11 eta 15-13). Hirugarren laurdenean, beasaindarrek zazpi puntuko errenta lortu zuten, baina etxekoek ez zuten esku hutsik geratu nahi eta ederki borrokatuta, azken minutuetan 19-10eko partziala egin eta bi punturengatik garaipena erdietsi zuten, 51-49.

Gainerako taldei dagokionez, goiko koadroan ikus daitekeen modura, Kadete Partaidetza kategoriako bi taldeek ere ezin izan zituzten aurkariak garaitu. erasoan aukerak sortu zituzten. Hamabosgarren minutuan, ahaleginek fruitua eman zuten eta baloia sarera bidali zuten.

Aurkariak berdinketaren golaren bila hasi ziren eta Texas, aldiz, partida erabakiko zuen gola. Zelai erdiko jokoa izan zen nagusi eta atea aurrean ez zuten zorterik izan ez batak ez besteak, ondorioz, atsedenaldira 1-0 joan ziren.

Zelaira itzultzean lehen zatiko azken minutuetako egoera errepikatu zen. Antzuolarrek, ordea, ongi baliatu zituzten bi gol aukera eta lehenik berdinketa eta geroago 1 eta 2koa jarri zuten markagailuan.

Txuri-urdinek berdinketaren golaren bila joan ziren eta azken minutura arte saiatu arren, ezin izan zuten lortu. Antzuolak eskuratu zuen garaipena.



Texas Lasartearrako Jubenil Gorena, erasoan. TXINTXARRI

FUTBOLA

Texas Lasartarra CFko Jubenil Gorenak, ezin aldeko emaitzari eutsi

Txintxarri

Texas Lasartearra CFko talde federatu bakarrak izan zuen norgehiagoka, hilaren 10ean. Jubenilen Gorengo Mailako taldeak Antzuola hartu zuen Michelin kirol gunean. Nahiz eta lehen zatian errenta atera, aurkariak emaitzari itzulia eman zion eta hiru puntuak Antzuolara joan ziren.

Talde zuri-urdineko gazteak gogotsu atera zen zelaira eta

ERRUGBIA

Donostia Rugbyk ongi borrokatu arren, ezin Avilesen garaipena erdietsi

Lehen zatia berdindua izan arren, asturiarrak nagusi izan dira bigarrenean eta 36-12 irabazi dute partida

Txintxarri

Ohorezko B Mailako Donostia Rugby taldeak ezin izan zuen Pasek Belenos garaitu. Avilesen (Asturias) jokatu zen partidan Beltzak RTko kide Lander Zabala eta Joanes Arroyo izan ziren hamabostekoan.

Lehen zatia berdindua izan zen eta 16-12 joan ziren atsedenaldira. Bigarrenean, ordea, etxekoak izan ziren nagusi eta hogei puntu eginez, 36-12 gailendu zen Pasek Belenos.

Astebeteko atsedena izango du Ohorezko B taldeak eta hilaren 25ean, Rugby Aranda Freund izango du aurrez aurre Zarautzen.

Gainerako Beltzak RTko ordezkariek, ordea, jardunaldia izango dute (ikus agenda). Horietako patidetako bat Atsobakar kirol gunea izango da, 14 urtez azpiko Zarautz Beltzak taldeak errugbi zazpiko lehia izango du, hilaren 17an, 14:30ean.

Garaipena eta lana

Horrez gain, Gaztedi taldean dagoen Aizpea Racamonde herritarrak Ohorezko B Mailako lehia hasi du. Hilaren 10ean, Gasteizeko taldeak Universitario Bilbao izan zuen aurrez aurre eta Lasarte-Oriako jokalaria hamabostekoan izan zen. Lehia estua izan zen zelaian eta 15-19 irabazi zuen Racamonderen taldeak.



Partidako momentu bat. ALOHA IDIAKEZ

Bestetik, Rugby Donostia nesken taldeko kide eta herritar Aitana Lazcano errugbi zazpiko 18 urtez azpiko Espainiako zein Euskadiko selekzioarekin egon da lanean.

Lehenekin hilaren 11tik 14ra egin zuen egonaldia Valladoliden (Gaztela eta Leon) eta Dakarren (Senegal) hilaren 31n hasiko diren Gazteriaren Olinpiar Jokoak prestatzeko saioa izan da; errugbi zazpiko lehiak azaroaren 1etik 3ra izango dira.

Euskadiko selekzioarekin, aldiz, hilaren 5ean egin zuen saioa Atsobakar kirol gunean.

Hurrengo jardunaldian, hilaren 17an, Zumaiara egingo du bidaia taldeak eta jubenil I. mailako ordezkariek ere izango dute lehia, hilaren 18an, Michelinen. Ikus kirol agenda.

Martinek, gola Deportivoren aurka

Ligako etenaldiaren ostean, Realak Coruñako Deportivoren aurka jokatu zuen partida Anoetan, hilaren 11n. Txuri urdinek 3-2 irabazi zuten norgehiagoka konplikatuan.



Martin, gola ospatzen. REAL SOCIEDAD

Jon Martin herritarra ederki jardun zen eta bere harritxoa jarri zuen talde txuri-urdinaren garaipenean, neurketako lehen gola egin zuen. Korner batean Carlos Solerren erdiraketa buruarekin jo eta sarera bidali zuen baloia Lasarte-Oriako defentsak.

Denboraldiko lehen gola du lasarteoriatarrak eta Realarekin hirugarrena; guztiak buruz sartu ditu.

PILOTA

Intzako pilotariek jardunaldi erabakigarriei egingo diete aurre hurrengo asteetan

Fase finalera sailkatzeko edo maila mantentzeko lehiak jokatuko dituzte

Txintxarri

Intza Pilota elkarteko kideek denetariko emaitzak izan zituzten Binakako Gipuzkoako txapelketako jardunaldian.

Kadete 1. Mailako Ekhi Maizek eta Oier Jauregik ezin izan zioten garaipenaren bideari jarraipena eman. Hernani 2 izan zuen aurrez aurre Intzako bikoak, hilaren 9an, Loidibarren pilotalekuan jokatutako hitzorduan.

Aurkariek 0-8 aurre hartu zuten eta ongi jokatuta pixkanaka aldea murriztea lortu zuten etxeko ordezkariek. Tamalez, neurketa amaitzerako, hernaniarrek lau puntuko errenta mantentzea lortu zuten eta 18-22ko markagailuarekin garaipena lortu zuten.

Bi jardunaldi falta dituzte Gipuzkoako txapelketako multzoko zatia amaitzeko eta hurrengo jardunaldian lehia garrantzitsuari egingo diote aurre Intzako kadeteek. Txapelketako azken fasean sailkatzeko lehen



Kadeteen partida. TXINTXARRI

bi postuetan egoteko lehiatzen ari dira Lasarte-Oriako kirol elkarteko ordezkariak eta aurretik puntu batera dagoen, Behar Zanaren aurka neurtuko dituzte indarrak etxean.

Maila mantentzea

Nagusien 2. Mailako ordezkariek, aldiz, bere multzoko azken bi postuak saihestea zuten helburu EPLEren aurkako neurketan. Errenteriako kideek ere asmo bera zuten eta tentsio handiko partida izan zen, hilaren 10ean, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Hutsik ez egitea zuten buruan eta ongi hasi zuten lehia Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilletak osatutako bikoak; aurre hartu zuten. Baina neurketak gorabeherak izan zituen kantxan eta markagailua baten zein bestearen alde egon zen zenbait momentutan. Hogeina berdindu eta etxekoek azken bi tantoak aldeko izatea lortu zuten.

Maila jaitsiera zuzena ekidin du bikoak. Kategoria mantentzeko laugarren postuan amaitu behar du Intzako bikoak eta garaipeneko bi puntuak lortzeko borrokatuko da falta diren partidetan, baina lehen bien aurka jokatu behar dute. Bosgarren edo seigarren sailkatuz gero, jaitsiera fasea jokatuko dute.

JUDO

LOKE Judoko ordezkariek, jardun ona txapelketa denboraldiari hasiera emateko

Maila eta eremu ezberdinetako txapelketetan lehiatu dira LOKEko kideak

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judokek txapelketa garairi hasiera eman diote maila ezberdinetan; Kadete mailako Kantabriako Superkopa eta Senior kategoriako Gipuzkoako txapelketa lehiatu zituzten, hilaren 3an eta 4an.

LOKEko bost kadeteek Santanderrera (Kantabria) egin zuten bidaia. Ariane Luiz eta Iraia Diez 57 kilo azpiko lehian izan ziren, Maria Escribano 63 kilo azpikoan, Iago Izquierdo 66 kilo azpikoan eta azkenik, Marcos Iriso 73 kilo azpikoan.

Herriko kirol taldeko ordezkari guztiak maila onean jardun ziren arren, bakarra iritsi zen hirugarren postua eskuratzeko borrokara, Diez. Lau borroka gainditu ostean, brontzezko domina janzteko lehiatu zen LOKEko gaztea, baina ihes egin zion sariak.

Bestetik, taldekide Aitor Santosek Urnietan antolatu zen Senior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu eta 90 kilo azpiko podiumera igo zen; hirugarren postuan sailkatu zen.

Txukun aritu zen borrokan LOKEko kidea Asier Sagasti beteranoa lagun eta brontzezko domina eskuratu zuen.



Ezkerrean, Sagasti eta Santos. Eskuinean, kadeteak eta Aristegi entrenatzailea. LOKE JUDO

IGERIKETA

Buruntzaldea IKTko igerilariek, denboraldiko lehen lehia Lasarte-Orian

Neguko Liga Maialen Chourraut igerilekuan hasiko da eta instalazioak itxita egongo dira hilaren 17an, arratsaldean

Txintxarri

Buruntzaldea Igeriketa Kirol Taldeko kirolariak lehiarako prest daude. Etxean hasiko dute Neguko Liga, gainera, lehen jardunaldia Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan jokatuko da. Hitzordua, hilaren 17an, 15:30ean izango da.

Irailean hasi zituzten entrenamenduak igeriketa taldeko kideek eta lehiako garaia iritsi zaie aurten Buruntzaldea IKT osatzen duten 106 igerilariei. Zazpi kategoria ezberdinetan igerian arituko dira elkarteko lagunak: aurre benjamin, benjamin, alebin, infantil, junior, absolutu eta master.

Lehenak lehian absolutu, junior eta infantil mailako kideak izango dira. Maialen Chourraut kiroldegian emango diote hasiera Neguko Ligari eta bestelako kontuak direla-eta, sei igerilari arituko dira lehen saioan.

Easwim Artistica Anoeta, Hernani Kirol Elkarteko zein CD Fortuna igeriketa taldeko aurkariak izango dituzte eta horien artean izango dira, aipatu azken kirol elkartean lehian ari diren Mayi Gorostegi eta Kimetz de la Cruz herritarrak.

Estilo eta luzera ezberdinetako probei aurre egingo diete igerilariek, baita 4x200 m. libre erreleboko probari ere.

Lehen saio horren ostean, abendura arte hiru jardunaldi izango dituzte kirolariek Neguko Gipuzkoako txapelketarako markak eskuratzeko.

Igerilekua, itxia

Neguko Liga hasierako jardunaldia dela-eta, Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakinarazten du, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekua erabiltzaile orori itxia egongo dela, hilaren 17an, 16:00etatik 20:00etara.

Gaztetxoak ere, aurki

Hurrengoak uretara jauzi egiten alebinak izango dira. Hilaren 24an, Andoainen izango dute ligako lehen saioa.

Benjamin eta aurre benjaminek, aldiz, azaroaren 7ra arte itxaron beharko dute lehen jaialdia egiteko.

LASTERKETAK

Lasarte-Oriako korrikalariak, lehen postuetan mendian zein errepidean

Txintxarri

Lasarte-Oriako eta herriko taldeko korrikalariak lehian izan ziren urriko zubian bai errepidean, baita mendian ere.

Donostiako Hiru Hondartzetako probak batu zituen ordezkari gehien, hilaren 11n. 100 bat lasarteoriatarrek igaro zuten Ondarretako hondartzako helmuga. Horien artean, Egoitz Rodriguez (34.28) eta Ane Sanchez (42.09) izan ziren azkarrenak.

Egun bat lehenago, Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko Xabier Aizpurua Zubietan (Nafarroan) izan zen lasterka eta 12 kilometrotako mendi lasterketa bosgarren postuan amaitu zuen (54.34).

Asturias aldean izan zen lehian Mari Carmen Olaso herritarra ere. Hilaren 10ean, Gijoneko



Olaso, Oviedoko podiumean. MC OLASO

Maratoi Erdian parte hartu zuen eta 11n, aldiz, Oviedoko Mendi Maratoi Erdian.

Asturiaseko hiriburuko lasterketan, Beterano C mailako zilarrezko domina jantzi zuen herritarrak helmugan 02.05.18 eginda; "gogorra" izan zela onartu du. Lehenean, aldiz, 01.46.57 marka egin eta MF55 mailako bosgarren izan zen.

ZORION AGURRAK



Andrea
Euskararen Maratoia hasiko da bihar baina guk ez ditugu 11 kandela piztuko, 28 baizik! Zortzikote, egingo dugu zuzeneko konexio bat Okendo plazatik Dominikar Errepublikara? Ea Andreak aurrenekoan hartzen digun deia! Zorionak etxeko "txikiari", familiakoen partetik.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta *txintxarri.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

SUDOKUA

				1	8		5	
	5		7		3			9
6	3	8	2	5		7		
5	8	6		4	2			
							6	
		2	5	7			4	
2	9			8	4			7
					7			
3						4		

Sudoku-online.org

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33


LARRIALDI TELEFONOAK

· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINTZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112



HIRIBUSA





Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | *txintxarri@ttakun.eus*

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA

- **Erakusketa** Zurmailu elkarteko kideek egindako lanak ikusteko azken aukera izango dute lasarteoriatarrek. Sarrera doakoa da. Antonio Mercero guneko esposizio aretoa, 18:00etatik 20:00etara.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Tailerra** Eguzki Robota izeneko saioa antolatu dute 7 eta 8 urtetako haurrentzako. Zientziarekin harremandu bitartean ikastea da ekimenaren helburua. Partaideek aurrez izena eman behar dute. Udal Liburutegia, 10:30etik 11:30era edo 11:45etik 12:45era.

IGANDEA 18

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Rufus, igeri egiten ez zekien sugea* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *La Odisea* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 21

LASARTE-ORIA

- **Ikuskizuna** 1986ko uztailaren 27an, Budapest hiriko Nepstadionen (Hungaria) kontzertua eman zuen Queen taldeak 80.000 pertsonarentzat. Jatorrizko grabazioa 4K kalitatean bireskaneatu dute, *Queen Budapest* ikuskizuna sortu dute eta gure herrian proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute.

OSTEGUNA 22

LASARTE-ORIA

- **Emanaldia** Kukuka eskolaren 25. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan *Gregoria* ikuskizunaren emanaldia egingo du Beatriz Egizabal umorista lasarteoriatarrak. Sarrera doakoa da baina bertaratu nahi dutenek gonbidapena eskuratu beharko dute leihatilan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.



OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Hlabeteko bigarren filma emango du Okendo Zinema Taldeak: *La bola negra*. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Musika** Zazpigarren artearen historian zehar bidaia musikala egingo dute Lide Hernando eta Ivan Azkarate abeslariek, zenbait musikari trebek osatutako bandarekin batera: *Zinema Paradise*. Azken ehun urteetako piezak joko dituzte. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

IGANDEA 25

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Tadeo Jones y la lámpara maravillosa* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *La bola negra* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:30ean.

OSTEGUNA 29

LASARTE-ORIA

- **Musika** Gure Lasarte Zikina ekimeneko kideek bi kontzertu iragarri dituzte herriko underground kultura sustatzen jarraitzeko: Kuma No Motor eta Spiruline taldeak etorriko dira euren onena ematera. Xirimiri elkartea, 19:30ean.



OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA

- **Emanaldia** Emanaldi literario musikatua egingo dute Mikel Etxaburu, Nerea Zuloaga, Jon Gardoki eta Irina Alvarez artistek. *Manttalingo alaba* izena duen poema liburuan oinarritutako ikuskizuna da. Sarrera doakoa da. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 31

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.

KULTURA

Hiru hilabeterako proposamenak bildu dituzte agenda berrituan

Udalaren iritziz, kultura egitarauaren "ikuspegi osatuagoa" emango du eta herritarren parte hartzea "erraztu" egingo du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 2026ko udazkeneko kultur agenda berria aurkeztu du. Berritasun nagusia da ohiko hilabeteko egitaraua hiruhileko formatura pasa dela eta, horrenbestez, agenda berriak urria eta abendua bitarteko kultur proposamen guztiak batu ditu.

Formatu berri horrek kultur egitarauaren ikuspegi osatuagoa eskainiko du, eta herritarren "parte hartzea erraztuko" du. Gainera, lehen aldiz, agenda Lasarte-Oriako etxe guztietara banatuko dutela iragarri dute udal ordezkariek; hori horrela, kultur jarduera zein ekintzen hedapena zabalduko da eta kultur informazioa herriko etxe guztietara hurbilduko. Argitalpenak euskarari emango dio lehentasuna, baina elebiduna izango da, eta hiru hilean behin kaleratuko da; hurrengo alea abenduan aurkeztuko dute.



Ordezkariak, agenda aurkezten. UDALA

Eskaintza, eskuragarriagoa

Kultura herritarrengana "hurbiltzearen garrantzia" azpimarratu du Agustin Valdivia alkateak: "Hiruhileko formatu berriarekin, beste urrats bat ematen dugu lasarteoriatarrek udalerrian garatzen diren kultur proposamen guztiak aldez aurretik ezagutu ahal izan ditzaten. Gainera, agenda etxe guztietara banatzeak horiengana zuzenean iristeko aukera emango digu, baita kultur eskaintza lasarteoriatar guztientzat eskuragarriagoa izatekoa ere".

Bestalde, hurrengo hilabeteetarako diseinatutako programazioaren "aniztasuna" nabarmendu du Kultura zinegotzi Ainara Elicecheak: "Udazkeneko kultur agendak publiko zabalarentzako proposamenak biltzen ditu, familia ikuskizunetatik hasi eta antzerki, musika, zinema, literatura edo erakusketetaraino. Pertsona bakoitzak bere intereseko jarduerak topatzea eta kultura elkartzeko, parte hartzeko eta gozatzeko gune izaten jarraitzea nahi dugu".

Udazkeneko egitarauak askotariko proposamenak biltzen ditu, horiek guztiak publiko zabalari zuzenduta. Hiru hilabete hauetan, besteak beste, musikarekin, antzerkiarekin, dantzarekin, zinemarekin, literaturarekin, erakusketekin eta familia ikuskizunekin lotutako jarduerak izango dira Lasarte-Orian.

Musika arloan hainbat estilotako kontzertu eta emanaldiak ikustera joateko aukera izango dute herritarrek, besteak beste, Xumela koruaren XX. urteurreneko jaialdia, Uran-Zu proposamena Nazioarteko Akordeoi Jaialdiaren barruan edo Aretha Gospel ikuskizuna, baita 24. Nazioarteko Akordeoi Jaialdia ere. Horrez gain, antzerkia, dantza eta askotariko formatu proposamenak izango dira. Umoreak ere izango du bere lekua Bea Egizabal eta Mikel Bermejo umoregileekin.

Agendak, halaber, tokiko talde eta elkarteekin batera bultzatutako hitzorduak ere jasotzen ditu, hala nola, Euskararen Maratoia edo tokiko kulturari eta elkarteei lotutako jarduerak, kultura, partaidetza eta herritarren topaketa uztartzen dituen programazioa indartuz. Jalguneren jaialdiak XX. edizioa ospatuko du azaroaren 28an, gizarte inklusioaren aldeko programazioaren barruan.

"Publiko zabalarentzako proposamenak" prestatu dituzte udazkenerako

gremioen gida 2026

Eskura eta herrian. Zerbitzurik onenak, zuretzat!

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD ARREGUI

• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak
• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Igeltseritza

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
• GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

Kristaldegia

AÑORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• Komertzial instalazioak
• Beira bikoitza
• Segurtasun beirak
• Dutxa-itxiturak eta irristailuak
• Ispiluak
• Barandak
• Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

34. URTEURRENA

ISU

PVC eta
ALUMINIOZKO LEIHOAK

943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne diseinua

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

• GREMIOEN KOORDINAZIOA
• ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
• AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
• HORMA-ARMAIRUAK
• MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

XI. EUSKARAREN MARATOIA

piztu!
sugarra gu gara

Badator Euskararen Maratoia!



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Tta kun
Kultur Elkartea